

# Praktika: egin mapa bat Datawrapper-ekin

Josemari Sarasola

Estatistika eta datuen analisia

Gizapedia



Datawrapper grafiko, mapa eta taula estatistiko ederrak eta modu sinplean egiteko online tresna bat da. Datawrapper-ekin jarduteko ez da ezer deskargatu behar, dena online egiten da, nabigatzailetik bertatik, eta dohainik. Ordainduzko aukerak badaude, baina debaldekoa nahiko zabala. Bereziki, egunkari eta aldizkarien editoreek erabiltzen duten aplikazioa da, infografiak egiteko, eta nazioarteko eta gobernuko erakundek ere erabiltzen dute euren argitalpenetan.

Datawrapper-era sartzeko esteka hau erabil ezazu:

<https://www.datawrapper.de/>

Aplikazioa erosotasunez erabiltzeko erregistratu behar duzu:

hasierako pantailan, **Dashboard** aukeran sakatuz agertzen den koadroan **Create new account** aukeratu behean, eta hortik gero **Sign up with email**: eman zure email kontu bat (gmail gomendatzen dizut) eta pasahitza (ez ahaztu apuntatzen).


Konfirmaziorako email bat jasoko duzu berehala.

Orain, aplikazioko hasierako orritik goiko izkinako **Start creating** botoia sakatu. Handik agertzen zaizun pantailan goian dagoen aukerak zabaldu, eta **map** aukeratu. Datawrapper aplikazioak mapak egiteko eskaintzen dituen aukerak agertzen dira. Hasiko gara **Locator map** aukera azaltzen.

Locator map aukerak zuk aukeratzeko duzun espazio geografiko batean, zure aukerako layer edo kapa, lerroak, mugarriak eta azalera txertatzeko aukera ematen du, testua ere sartuz. Mapa batean puntuak, bideak eta areak seinatu eta iruzkintzeko aukera ematen du.

Lehenengo pantailan munduko mapa agertzen da. Bertan behin eta berriz klik eginez eta arrastratuz, zure aukerako mapa enkoadratuko duzu. Beherago, zoom-ean atzera egin eta beste gauza batzuk egiteko botoiak ere badituzu. Hemen fakultate inguruko planoa atera dugu:

**[ Insert title here ]**




Zure mapa enkoadratuta, markatzaileak nola gehitu ikasi behar duzu. **Add marker** aukera sakatu behin. Ikusiko duzu puntu beltz bat jarri dela maparen erdian: markatzailea da. Markatzailea zuk nahi duzun lekuan koka dezakezu, eta hainbat aukera dituzu: testua gehitu (testua aparte mugitu dezakezu, markatzailetik urrunago edo gertuago jarritz), beste ikur asko aukeran, kolorea, tamaina (scale). *Draw line between marker and marker text* aktibatuta geziak txerta ditzakezu, eta gezi horiek testuarekin batera urrundu, gerturatu eta jiratu. Beste behin sakatzen baduzu *Add marker* aukera, beste markadore bat jarri dezakezu, beste estilo batean, eta nahi duzun lekuan jarri noski. Ikusiko duzu bi markadoreak ezker aldean agertzen direla zerrenda batean, eta bertatik kendu, aukeratu eta aldatu ahal dituzula.

# Datawrapper: locator map: markatzaileak

Lehengo mapan, adibidez, markatzaile hauek ditugu:

[ Insert title here ]



Created with Datawrapper

# Datawrapper: locator map: markatzaileak: azalera

Markatzaile gisa, eskualdeak ere jar ditzakegu. Adibidez, Euskal Herriko mapa hartzen badugu, ahal dugu Gipuzkoa markatu. Horretarako, zure mapan kokatu, **add markers** aukeran eta **add region as area marker** aktibatu, eta ondoren tekleatu markatu nahi duzun eskualdea, kolore, ertz eta beste hainbat aukerekin batera.






# Datawrapper: locator map: markatzaileak: azalera nahieran

Azalera nahieran ere ezar daitezke markatzaile gisa, administratiboak edo politikoak izan gabe. Baina orduan prozesua luzeagoa da. Horretarako, zure mapan kokatu, **add markers** aukeran eta **Import line and area markers** aktibatu. Orain, nabigatzailean beste leiho bat zabaldu eta **geojson.io** webgunera sartu. Munduko mapa agertzen zaizu, eta hor zoom eginez, koka zaitez zure mapan (gutxi gorabehera, ez da beharrezkoa zehatza izatea, aski da markatu nahi duzun azalera bistan edukitzea). Maparen eskuin aldean, goian eta zoomaren azpiko blokean dagoen **Draw a polygon** aukera hartu, eta joan zaitez mapan markatzaile gisa erabili nahi duzun azalera marraztera, puntuz puntu inguratu eta hasierako puntuan bukatuz.

# Datawrapper: locator map: markatzaileak: azalera

Hemen adibidez, campuseko liburutegi nagusia inguratu dugu poligono batez. Zenbat eta puntu gehiago jarri, orduan eta biribilago agertuko da. Bukatuta duzunean, gorde (Save), GeoJSON aukerarekin.




The screenshot shows a web browser window with a map application. A dark grey polygon is drawn around a building on the map. The right sidebar displays the GeoJSON data for the polygon:

```
1. {
2.   "type": "FeatureCollection",
3.   "features": [
4.     {
5.       "type": "Feature",
6.       "properties": {
7.         "stroke": "#555555",
8.         "stroke-width": 2,
9.         "stroke-opacity": 1,
10.        "fill": "#555555",
11.        "fill-opacity": 0.5
12.      },
13.      "geometry": {
14.        "type": "Polygon",
15.        "coordinates": [
16.          [
17.            [-2.81867355615706,
18.             43.3887811476163],
19.            [
20.              [-2.811258794252286,
21.               43.38560743509666],
22.              [
23.                [-2.8116782108415517,
24.                 43.388175482806513],
25.                [
26.                  [-2.811258794252286,
27.                   43.38560743509666],
28.                  [
29.                    [-2.8116782108415517,
30.                     43.388175482806513],
31.                    [-2.81867355615706,
32.                     43.3887811476163]
33.                  ]
34.                ]
35.              ]
36.            ]
37.          ]
38.        ]
39.      }
40.    ]
41.  }
```

# Datawrapper: locator map: markatzaileak: azalera

Hemen adibidez, campuseko liburutegi nagusia inguratu dugu poligono batez. Zenbat eta puntu gehiago jarri, orduan eta biribilago agertuko da. Bukatuta duzunean, gorde (Save), GeoJSON aukerarekin.




```
1. {
2.   "type": "FeatureCollection",
3.   "features": [
4.     {
5.       "type": "Feature",
6.       "properties": {
7.         "stroke": "#555555",
8.         "stroke-width": 2,
9.         "stroke-opacity": 1,
10.        "fill": "#555555",
11.        "fill-opacity": 0.5
12.      },
13.      "geometry": {
14.        "type": "Polygon",
15.        "coordinates": [
16.          [
17.            [-2.81867355615706,
18.             43.3887611476163],
19.            [
20.              [-2.811258794252286,
21.               43.38560743509666],
22.              [
23.                [-2.8116782108415217,
24.                 43.388175482806513],
25.                [
26.                  [-2.811258794252286,
27.                   43.38560743509666],
28.                  [
29.                    [-2.8116782108415217,
30.                     43.388175482806513],
31.                    [-2.811258794252286,
32.                     43.38560743509666]
33.                  ]
34.                ]
35.              ]
36.            ]
37.          ]
38.        ]
39.      }
40.    ]
41.  }
```

# Datawrapper: locator map: markatzaileak: azalera

Orain, Datawrapper-era itzuli eta **Add markers** blokean **Import GeoJSON or CSV** botoia eman eta beste aplikazioan egin eta gorde duzun fitxategia aukeratu. Berehala agertuko da zure azalera markatuta. Azalera eta ertzetako koloreak aldatu ditzakezu. Hona hemen gure emaitza:

[ Insert title here ]



Created with Datawrapper


Itzuli *geojson.io* aplikaziora eta aurreko markatzailea ezabatu, gainean klik eginda, *delete feature* botoia sakatuz. Azalerak bezalaxe, *geojson.io* aplikazioan lerro edo bide bat ere marraz dezakegu, poligonoaren ordean, lerro ikurra aukeratuz. Horretarako, puntuz puntu lerro bat marraztu, eta lerroa bukatzeko azken puntuan egin klik bi aldiz. Lerroa gorde, GeoJSON moduan, azalerarekin egin zenuen bezalaxe, eta pasa Datawrapper-eko mapara, modu berean, Impor GeoJSON botoia sakatuz eta gordetako lerroa bilatuz. Lerroaren estiloa, lodiera eta kolorea alda ditzakezu.

Itzuli *geojson.io* aplikaziora eta aurreko markatzailea ezabatu, gainean klik eginda, *delete feature* botoia sakatuz. Azalerak bezalaxe, *geojson.io* aplikazioan lerro edo bide bat ere marraz dezakegu, poligonoaren ordeztu, lerro ikurra aukeratuz. Horretarako, puntuz puntu lerro bat marraztu, eta lerroa bukatzeko azken puntuan egin klik bi aldiz. Lerroa gorde, GeoJSON moduan, azalerarekin egin zenuen bezalaxe, eta pasa Datawrapper-eko mapara, modu berean, Import GeoJSON botoia sakatuz eta gordetako lerroa bilatuz. Lerroaren estiloa, lodiera eta kolorea alda ditzakezu.

# Datawrapper: locator map: markatzailek: bideak

Adibidez, hemen fakultatetik liburutegirako bide-markatzaile bat jarri dugu:

[ Insert title here ]



Created with Datawrapper

Gogoratu, bukatzeko, aurretik jarritako edozein markatzaile aukeratu eta aldatu dezakezula aplikazioaren panel edo lan-eremuan.

# Datawrapper: locator map: design map

Markatzaileak jarrita (*Add markers* atalean garatu duguna), orain aplikazioan bigarren pausora pasatzen gara, panel nagusian *design map* sakatuz. Han, maparen *layer* edo geruza alda dezakegu. Guk *Earth* geruza, iparorratza eta eskala aukeratu ditugu:

[ Insert title here ]



Created with Datawrapper



# Datawrapper: locator map: design map

Orain, *Annotate and Layout* fasera pasa behar duzu: maparen izenburua, iruzkinak, egilea, data iturriak eta abar jar ditzakezu. Markadoreen legenda ere erantsi dezakezu *add key for markers*; adibidez kolore desberdinetako markatzaileak jarri badituzu, koloreak adierazten duena azaltzeko.

## **Ekonomia eta Enpresa fakultatea**

Nola joan iburutegia



Estadística eta datuen analisi

Mapa: Josemari Sarasola - Source: EHU - Created with Datawrapper

# Datawrapper: locator map: design map

Azkenik, mapa eskuratzelko artxibo batean, paneleko laugarren fasera pasa behar du: *Publish*. Han, *Export or duplicate visualization* atalean PNG aukeratu eta mapa deskargatzeko aukera izango duzu (download image), PNG formatoan.

Edozein unetan, aurreko fase batera itzuli eta mapa aldatu dezakezu. Hemen, azken aldaketatxo bat egin diogu gureari, ea asmatzen duzun nola egin dugun.

## Ekonomia eta Enpresa fakultatea

Nola joan iburutegira



Estadística eta datuen analisiak

Mapa: Josemari Sarasola - Source: EHU - Created with Datawrapper

